

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntzak bilerara deitu ditu akordiora gehitu diren itunpeko patronalak eta sindikatuak

Kontseilariak ordezkari sindikalekin hitz egiten jarraitzeko asmoa berretsi du, akordio honetatik kanpo geratu diren bestelako kontuez

Asteazkena, 2017.eko irailak 6

Egindako azkeneko proposamenari erantzuteko eskatu zitzaizen gaurko itunpeko sareko sindikatuei. Hala, Hezkuntza Kontseilari Maria Solanak akordiora gehitzeko asmoa dutenak bilerara deitu ditu biharko, 12:30ean, Hezkuntza departamentura.

Solanak positibotzat jo du "azkeneko hilabeteetan izandako prozesua, baita akordioa babesteko aldeek erakutsitako jarrera ere. Bihar elkartuko garenon ardura ariketa izan da eta irakasle eta administrazio langileen lan-baldintzen hobekuntza nabarmenak ahalbidetuko ditu akordioak".

"Sindikatuak nahiz patronalek azkeneko egunera arte egin dituzten ekarpenak hartu dira aintzat eta ziur naiz, itxura guztien arabera bihar sinatuko den akordioak, eskari ia guztiak jasotzen dituela", baieztatu du Solanak.

Sindikatuak aurreratu bezala, kontseilariak ordezkari sindikalekin hitz egiten jarraitzeko asmoa berretsi du, akordio honetatik kanpo geratu diren bestelako kontuez.



Hezkuntza departamentua.